



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK GARRAIO PUBLIKOAREN DOBAKOTASUNA ESKATU DABE ADIMEN DESGAITASUNA DAUKIEN PERSONEI LAGUNTZEN DOAZENENTZAKO

- Osoko batzarrak aho batez onartu dau Elkarrekin Bizkaiak aurkeztu eta Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek zuzendu dabenez arauz besteko proposamena, kolektibo horren “aukera-bardintasunean aurrera egiteko”.
- Beste itaun batean, Batzar Nagusietako taldeak ez dira bat etorri AHTren obrak zelan eta noiz amaitu behar diran erabagiterakoan. Batzar Nagusietako osoko batzarrak atzera bota dau Talde Berezia-PP taldearen itaun bat; azken horrek, aldi berean, EH Bilduren eta Euzko Abertzalek eta Euskal Sozialistak taldeen osoko zuzenketa bi bota ditu atzera.
- EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia argi eta garbi agertu dira beharrezkoak diran beste proiektu batzuk deskapitalizetan dituan “dirua botatearen” kontra.
- Popularrek kronograma “argi” bat sortzeko beharra jarri dabe mahai gainean, Bilborainoko lanak ixteko, eta jeltzaleak eta sozialistak, Espainiako Gobernuak eta Euzko Jaurlaritzak daborduko negoziatan ari diran Bizkaiko uriburuko lurpeko tartea kudeetako aginduaren alde agertu dira
- Eskaerretarako eta Herritarrakazko Hartu-emonetarako Batzordea 7 aldiz bildu da azken urtean, eta 11 gai jorratu ditu, aurreko urtean baino hiru gehiago.

(Gernika, 2021eko zemendiaren 17a). Bizkaiko Batzar Nagusiek gaur Gernikan egindako osoko bilkuran “beste pausu bat” emon dabe adimen desgaitasuna daukien personeren bardintasunean aurrera egiteko. Legebatzarrak onartu egin dau Elkarrekin Bizkaiak aurkeztutako arauz besteko proposamen bat, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak zuzendutakoa. Proposamen horren bitartez, garraio publikoaren arloan eskumena daukien hainbat erakunderi eskaerea egiten jake, legezko mekanismoak ezar daiezan holango desgaitasuna daukien personeren laguntzaile moduan doazan txartela ordaintzetik salbuetsita egon daitezkan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Ekimenak batzarretako talde guztien babesa jaso dau. Elkarrekin Bizkaiko Eva María Cabornero batzarkideak emon deutso hasierera eztabaidari, eta esan dau bere taldeak dakarren proposamena kolektibo horretako personetatik jasotakoa dala, eta adimen desgaitasuna daukien personen “gainkostuak” saihestu gura dituela, bakarrik bidaiatzeko trebetasunik ez daukielako txartel bi ordaindu behar izaten dituelako. Ekimen “aitzindari” horren helburua “persona guztiek eskubide bardinak” eta “baldintza bardinetan mobiduteko aukerea” izatea da, esan dau.

Hasiera batean, itaunak, ziurtagiri bat egiteaz Bizkaiko Foru Aldundia arduratu eitela eskatzen eban, ostean gaian eskumena daukien operadore eta administrazioei laguntzailearentzako dobako bidaia ezarteko eskatzeko. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek proposamena egin dauen taldeak euren zuzenketak onartzea lortu dabe, hobekuntza hori sartzeko mekanismoak “zehazteko”; izan be, hobekuntza hori “erabateko bizi-tza gauzatu ahal izateko aurrerapausua da”, eta zenbait kolektiborentzat garraio publikoa erabilteko orduan oztopo gehiago kentzea dakar.

Halan, azkenean, Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deutse behar diran mekanismoak ezar daizala lurraldeko garraio publikoko operadoreek jakin ahal izan daien zein personak daukan “2101, 2102, 2103, 2105 eta 2106 muga-kodeak dabezan % 45eko edo gehiagoko desgaitasuna eta mendetasun-maila autortua CIE10/OMS-2001 txostenaren arabera, pertsonak eurek halan eskatu ondoren”. Horrez gain, azkenengo proposamenak, baldintza hori beteten daben ordainketa-salbuespenen onura sar daiala eskatzen deutso Eusko Jaurlaritzari, eta gauza bera egiten dau Bizkaiko Garraio Partzuergoagaz eta Tarifak Integretako Batzordeagaz, Bizkaiko garraio publiko osora zabaldu daian.

EH Bilduk itaunaren eukia kritikau dau hasieran, adimen desgaitasuna daukien personetara mugatzen dalako, baita zuzenketa-eskeak be, “ez dagozalako ondo zehaztuta”, baina testuaren alde agertzea erabagi dau, “oso pausu txikia” dala zehaztuz. Koalizino abertzalea salbuespen hori beste kolektibo batzuetara zabaltzearen alde agertu da, itsuen edo mobikortasun arazoak dituen personen taldeetara, besteak beste, eta baita baliaezintasuna “% 30era edo 33ra” jaistearen alde be, alkarte batzuek eskatzen daben moduan. Onuradunen Errentea kontuan hartzeko be eskatu dau.

AHT, TURISMO JASANGARRIA ETA ETXEBIZITZA HUTSAK

Batzar Nagusietako taldeek ez dabe akordiorik lortu Abiadura Handiko Trena (AHT) Bizkaira iristeari jagokonez. Talde Berezia-PPren itaun baten bidez, kronograma “argia eta behin betikoa” ezartea eskatzen zan, Bilboko erdiguneraino lurpetik iristearen inguruan, eta EH Bildu eta Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen arteko



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

eztabaidea sortu da horren inguruan, bata bestearengandik oso urrun egozan gauzak eskatzen ebezan osoko zuzenketa-eskeak aurkeztu ditue-eta.

Koalizino abertzaleak egungo proiektua geldiarazotea eskatu dau, “Bizkaiarentzat lehentasunezkoa ez dalako”, eta jeltzaleak eta sozialistak “ahalik eta epe laburrenean” martxan jaratearen alde agertu dira, behin-behineko geltoki bat eregiteko aukerea aurreikusi ahal izango dauen kudeaketa agindu baten bidez, AHTa Bilbora lurpetik iristeko prozesuan “ezelango aldaketarik eragin barik”.

Gai horretan, aspaldiko eztabaidak errepikau dira barriro be, datei eta atzerapenei buruzko oroitzapenak, gero eta inbertsino handiagoei buruzkoak eta izango dauen erabilgarritasunari buruzko errazoiak... Guztiak be, 2006ko urrian Arabako tartean, eta Bizkaian urte bi geroago, obrak hasi ziranetik, talde batzuen eretxiz, “Bizkaiarentzat estrategikoa” dan azpiegitura horren inguruan hemerotekan behin eta barriro agertzen diran puntuak. 4.200 milioi euroko hasierako inbertsinoa “6.500 milioi eurokoa” izatera pasatu da, Emilio Lobato Elkarrekin Bizkaia taldeko ordezkariaren berbetan, eta “10.000 milioi eurokoa”, Gainegitura sartzen bada, EH Bilduko Raul Mendezek zehaztu dauenez.

Kontua da obrek aurrera jarraitzen dabela, eta Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak “kudeatzeko agindu bi” negoziatan ari dirala, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak adierazo dabenez, lanak “ahalik eta epe laburrenean” amaitzeko, eta horrek “norabide berean” lan egiten ari dirala erakusten dau. Halanda be, Amaya Fernandez PPko ordezkariaren eretxiz, lanak bizkortzeko mobimendu horregaz, Bilbora iristeko lurperatzea “aparkauta” geratu da, “ikusiko dogu” bategaz; hori dala eta, bere taldeak obra amaitzeko kronograma “argi” bat sartu gura izan dau. Kronograma horrek Bizkaiko uribururaino lurperatzea eta Basaurin behin-behineko geltoki bat egitea baztertzea jasoko leukez. Ekimena ez da onartu, kontrako 43 botogaz (EAJ, PSE-EE eta EH Bildu), 6 abstentzinogaz (Elkarrekin Bizkaia) eta proposamena egin dauen taldeko ordezkarien aldeko boto bigaz.

Elkarrekin Bizkaia taldeak Bizkaiko turismo ereduaren eta jaube handien etxebizitzaren aprobetxamendu sozialaren inguruan egindako ekimen bigaz amaitu da eztabaidea. Azken hori EH Bildugaz adostu da, erdibideko zuzenketa baten bidez. Legebatzarrak biak baztertu ditu. Elkarrekin Bizkaia taldeak EH Bilduren babesaren baina ez dau izan bietan.

Bost punturen bidez, talde moreak Bilbao Bizkaia plan turistikoak barrikustea proponidu dau, tokiko fluxuak eta udalerrigazko eta eskualdeagazko koordinazio handiagoa izango leuken eredu jasangarriagoa bultzatzeko, sektoreko lan-prekarietatearen kontra burruka egiteko asmoz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Horrez gain, Batzar Nagusiek atzera bota dabe EH Bildugaz batera aurkeztu dauen arauz besteko proposamen bat, Bizkaiko jaube handien, bankuen eta inbertsino funtsen etxebizitza hutsen aprobetxamentu sozialerako. Proposamen horretan hainbat eskaera egiten jakezan udalei eta Eusko Jaurlaritzari.

HERRITARREN 11 GAI

Osoko batzarrean, Gorka Beitia Eskaeratarako eta Herritarrakazko Hartu-emonetarako Batzordeko presidentek, Batzar Nagusietako taldeen eretxiz herritarren parte-hartzerako “erabilgarria” dan tresna horren jarduera-memoria aurkeztu dau. 2020ko irailetik 2021eko garagarrilera bitartean, batzorde hori zazpi aldiz bildu zan, eta 11 gai aztertu ebazan (aurreko urtean baino hiru gehiago), Bizkaiko herritarrek eskatuta.

Alkarte, talde edo herritar anonimoek hainbat gairi buruzko euren kexak azaldu ahal izan ebezan: egoitzen kudeaketea pandemia betean, Zugaztietako artzaintza-eskubideak, Bizkaia Torrea, Txorierriko Korridoreko abiadura-mugea, errepideetako obren eragina (AP-68 eta Etxano ingurua), adineko personek jasaten daben eten digitala edo Usansoloren desanexinoa.

Batzar Nagusietako taldeek uste dabe batzordea tresna ona dala gizarteagaz hartu-emon zuzena izateko, baina oposizioak uste dau “hedatzeko eta ezagutuarazoteko ahalegin handiagoa” egin behar dala eta batzordeek izaera “politikoagoa” izatea ahalbidetu behar dala, ebazpenak onartzea ahalbidetuz. Azken gai hori EH Bilduk eskatu dau, eta Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen eretxiz, talka egiten dau Legebatzarreko araudiagaz; izan be, talde horren eretxiz, ekimenak Batzar Nagusietako taldeei jagokez.

Atzera begiratuz, Elkarrekin Bizkaia taldeak gogorarazo dau batzordea “interesa galtzen” joan dala herritarren artean, eta hori justifikauta geratzen dala aztertutako gaien beherakadea ikusita: 35, funtzionau eban lehenengo urtean, eta 11, azken ekitaldi honetan. Horrek esan gura dau herritarrek tresna hori “ez dala oso erabilgarria” pentsetan dabela. Aldundia babesten daben taldeentzat pandemiaren eraginak sortutako beherakada koiunturala da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA PIDEN LA GRATUIDAD DEL TRANSPORTE PÚBLICO PARA ACOMPAÑANTES DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL

- El pleno aprueba por unanimidad una proposición no de norma presentada por Elkarrekin Bizkaia, que ha sido enmendada por Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, para “avanzar en la igualdad de oportunidades” de este colectivo.
- En otra moción, los grupos junteros discrepan sobre cómo y cuándo acabar las obras del TAV. El pleno del Parlamento foral rechaza una moción del grupo Mixto-PP, grupo que ha desestimado a su vez dos enmiendas a la totalidad de EH Bildu, y de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos.
- EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia se muestran abiertamente contrarios a frenar el “despilfarro” del TAV que descapitaliza otros proyectos más necesarios.
- Los populares ponen sobre la mesa la necesidad de crear un cronograma “claro” para cerrar las obras hasta Bilbao, y jeltzales y socialistas apuestan por la encomienda de gestión para el tramo soterrado de la capital vizcaína que negocian ya los gobiernos central y vasco.
- La Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía se ha reunido en 7 ocasiones el último año y ha tratado 11 asuntos, tres más que el año anterior.

(Gernika, a 17 de noviembre de 2021). El pleno de las Juntas Generales de Bizkaia celebrado hoy en Gernika ha dado “un paso más” para avanzar en la igualdad de las personas con discapacidad intelectual. La Cámara ha aprobado una proposición no de norma presentada por Elkarrekin Bizkaia, que ha sido enmendada por Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, que insta a distintas entidades con competencia en materia de transporte público a establecer los mecanismos legales necesarios para que quienes acompañen a personas con esta discapacidad puedan quedar exentas de pagar el billete.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

La iniciativa ha contado con el apoyo unánime de todos los grupos junteros. La juntera Eva María Cabornero de Elkarrekin Bizkaia ha abierto el debate diciendo que la propuesta que trae su grupo, recogida de personas de este colectivo, trata de evitar los “sobrecostes” a los que tienen que hacer frente las personas con discapacidad intelectual, que se ven obligadas a pagar dos billetes por carecer de destrezas para viajar solas. El objetivo de esta iniciativa “pionera” en nuestro entorno, es conseguir que “todas las personas tengan los mismos derechos” y que éstas, en concreto, “gocen de una movilidad en igualdad de condiciones” respecto al resto de la sociedad, ha dicho.

Inicialmente, la iniciativa no de norma instaba a que fuera la Diputación foral de Bizkaia la administración encargada de emitir un certificado para pedir después a operadores y administraciones con competencia en la materia a establecer el viaje gratuito para el acompañante. Nacionalistas Vascos y Socialistas vascos han conseguido que el grupo proponente acepte sus correcciones para “concretar” los mecanismos de cara a introducir esta mejora, que supone “un avance para el desarrollo de una vida plena”, y la eliminación de más barreras en el transporte público para algunos colectivos.

Así, finalmente, las Juntas Generales instan a la Diputación Foral de Bizkaia a establecer los mecanismos necesarios para que las operadoras de transporte público del Territorio puedan tener constancia de qué personas tienen discapacidad “igual o superior al 45% con códigos de limitación 2101, 2102, 2103, 2105 y 2106 según el CIE10/OMS-2001 y grado de dependencia reconocido, tras solicitud de las propias personas”. Asimismo, la propuesta acordada insta al Gobierno vasco a incluir el beneficio de la exención de pago que cumplan esta condición, y hace lo propio con el Consorcio de Transportes de Bizkaia y con la Comisión de integración Tarifaria para que lo extienda al conjunto del transporte público de Bizkaia.

EH Bildu ha criticado inicialmente el contenido de la moción al limitarse a las personas con discapacidad intelectual, así como ha afeado las enmiendas “por no concretarse bien”, si bien ha decidido apoyar el texto, matizando que es “un paso muy reducido”. La coalición abertzale ha abogado por extender esta exención a otros colectivos como el de las personas ciegas o con problemas de movilidad, y rebajar la invalidez “al 30 o 33%” como reclaman algunas asociaciones. También ha reclamado que se tuviera en cuenta la Renta de las personas beneficiadas.

TAV, TURISMO SOSTENIBLE Y VIVIENDAS DESHABITADAS

Los grupos junteros no han llegado a un acuerdo, sin embargo, en lo que concierne a la llegada del Tren de Alta Velocidad (TAV) a Bizkaia. Una moción del grupo Mixto-PP en la que se pedía el establecimiento de un cronograma “claro y definitivo” con llegada



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

soterrada hasta el centro de Bilbao, ha inducido a EH Bildu y a Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos a avivar el debate con la presentación de sendas enmiendas a la totalidad que pedían cosas muy alejadas.

La coalición abertzale ha demandado la paralización del proyecto actual “por no ser prioritario para Bizkaia”, y jeltzales y socialistas han apostado por que la puesta en funcionamiento se haga “en el menor plazo posible” por medio de una encomienda de gestión, que pueda llegar a contemplar la posibilidad de construir una estación provisional, “sin que ello suponga alteración alguna” sobre la llegada soterrada del TAV a Bilbao.

En este asunto se han vuelto a reproducir viejos debates, recuerdos de fechas y retrasos, presupuestos crecientes, razones sobre su utilidad... que esta infraestructura “estratégica para Bizkaia”, según algunos grupos, viene coleccionando en la hemeroteca desde que se iniciaron las obras en el tramo alavés en octubre de 2006, y en Bizkaia dos años después. 4.200 millones de euros de inversión inicial que han pasado a ser “6.500 millones”, según el apoderado de Elkarrekin Bizkaia Emilio Lobato, y que pueden elevarse a “10.000 millones” si se incluye la Superestructura, ha matizado Raúl Méndez, de EH Bildu.

El caso es que las obras continúan y los Gobiernos central y vasco negocian ahora “dos encomiendas de gestión”, según han apuntado Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, para finalizar “en el menor plazo posible” las obras, lo que refleja que se trabaja “en la misma dirección”. Sin embargo, la portavoz popular Amaya Fernández cree que, con este movimiento para acelerar las obras, “queda aparcado” el soterramiento de la llegada a Bilbao con “un ya veremos”, de ahí que su grupo haya pretendido incluir un cronograma “claro” para rematar la obra con el soterramiento hasta la capital vizcaína incluido y desechando una estación provisional en Basauri. La iniciativa ha decaído por 43 votos contrarios (PNV, PSE-EE y EH Bildu), 6 abstenciones (Elkarrekin Bizkaia), y solo 2 votos a favor, los que han sumado los representantes del grupo proponente.

El pleno ha culminado con dos iniciativas del grupo Elkarrekin Bizkaia sobre el modelo de turismo de Bizkaia, y el aprovechamiento social de vivienda de grandes propietarios, esta última consensuada con EH Bildu a través de una enmienda transaccional. Ambas han sido desestimadas por la Cámara. La formación morada solo ha contado con el apoyo de la coalición abertzale en ambas.

A través de cinco puntos, el grupo morado ha planteado revisar los planes turísticos de Bilbao Bizkaia hacia un modelo más sostenible, con flujos locales y mayor coordinación con municipios y comarcas, y con una intención de luchar contra la precariedad laboral en el sector.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Asimismo, la Cámara vizcaína ha rechazado una proposición no de norma que ha sido transaccionada con EH Bildu para el aprovechamiento social de la vivienda deshabitada de grandes tenedores, bancos y fondos de inversión en Bizkaia, y con diferentes peticiones a ayuntamientos y Gobierno vasco.

11 ASUNTOS DE LA CIUDADANÍA

En el pleno, el presidente de la Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía, Gorka Beitia, ha presentado la memoria de actividad de esta “útil” herramienta, según los grupos junteros, de participación ciudadana. Entre septiembre de 2020 y julio de 2021, esta comisión se reunió en siete ocasiones y trató 11 asuntos (tres más que el año anterior) a petición de la ciudadanía de Bizkaia.

Asociaciones, colectivos o ciudadanos y ciudadanas anónimas pudieron exponer sus quejas sobre la gestión de las residencias en plena pandemia, los derechos de pastoreo en La Arboleda, la Torre Bizkaia, el límite de velocidad en el Corredor del Txorierrri, el impacto de obras de carreteras (AP-68 y zona de Etxano), la brecha digital de las personas mayores o la desanexión de Usansolo.

Los grupos junteros creen que esta comisión es un buen instrumento para tomar contacto directo con la sociedad, si bien la oposición piensa que se tiene que hacer “un mayor esfuerzo de difusión” y permitir que las comisiones tengan un carácter “más político” permitiendo la aprobación de resoluciones. Este último asunto, solicitado por EH Bildu, choca con el reglamento de la Cámara según Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, ya que, para ellos, las iniciativas parlamentarias recaen en los grupos junteros.

Echando una mirada atrás, el grupo Elkarrekin Bizkaia ha recordado que la comisión ha ido “perdiendo interés” entre la ciudadanía, algo que queda justificado por la caída de asuntos tratados, 35 en su primer año de funcionamiento, frente a 11 en este último ejercicio, lo que se puede traducir en que la ciudadanía encuentre esta herramienta “poco útil”. Para los grupos que apoyan al Gobierno foral supone un descenso coyuntural provocado por el impacto de la pandemia.